



TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Osteguna  
2009-12-31

VII. URTEA 1.893. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

## «Krisi ekonomikoak baldintzatutako aurrekontuak» onartu dituzte

**TOLOSA** 2009n baino bost milioi euro gutxiago izango dira; EAJ eta Hamaika Bat-en babesari jaso du proposamenak

**HAUTETSI INDEPENDENTISTAK** Ezker abertzaleak osoko bilkuran «hitza galarazi izana» salatu du z



Juan Mari Beltran, Anjel Alkain, May Gorostiaga eta Andoni Iturzaetak aurkeztu zuten neguko egitaraua. I. GARCIA

## NEGUKO EGITARAU «ERAKARGARRIA» AURKEZTU DUTE

**TOLOSA** Tolosako Udaleko arduradunen hitzetan datozen hiru hilabeteetarako kultur eskaintza «kalitatezkoa» izango da 3

## «Herriz herri auzoz auzo» ahozko ondarea gordetzen

**TOLOSALDEA** Miren Artetxe 'Ahotsak.com'-eko kideak datorren urtean 150 elkarrizketa egiteko asmoa dauka eskualdeko heldueneren artean 6

**Binakakoan Belokirekin osatuko du bikotea Oinatz Bengoetxeak**

**LEITZA** Sake bakarra eta Kiroltasun Saria dira aurtengo berrikuntzak 7

**Aurrera-Saiaz elkartekoak «oso pozik» Gipuzkoakoan lortutakoarekin**

**PILOTA** Guztira bost txapel eta hiru bigarren postu lortu dituzte kirolari gazteek 5

informazioa  
h



## HITZAK harpidedun eta irakurleei urte berri on bat opa die

Hurrengo alea **urtarrilaren 5an** argitaratuko da

# «Krisi ekonomikoak baldintzatutako aurrekontuak» onartu ditu Udalak

**Politika** » 2009an baino ia bost milioi euro gutxiago izango dira; EAJ, PP eta Hamaika Bat-en babesa jaso du proposamenak.

## ESTI EZEIZA

Udalbatzak 2010eko aurrekontu orokorrari onarpena eman zion herenegun egindako urteko azken osoko bilkuran. Hau, denera, 30.717.000 eurokoa da. Dena den, aurrekontu orokorra kopuru horretakoa bada ere, hauetatik 21.807.000 izango dira Udalak kudeatuko dituenak, gainontzekoa, enpresa publikoentzako izango da. Zifrak alderatuz gero ikusi daiteke, ia zkoa baino baxuagoa dela aurrekontua, %13,6 jaitsi delarik.

EAJ, PP eta Hamaika Bat alderdien babesa jaso zuen proposamenak. Ezker Batua-Aralar koalizioak ezetzkoa bozkatu zuen, eta PSE-EE eta EA abstenitu egin ziren. Honenbestez, hasierako onarpena eman zitzaion herenegun 2010eko aurrekontuari. Orain, hamabost egunez jendaurrean jarriko dute proposamena, eta ez bada alegaziorik aurkezten, onartutzat joko dute.

Udalbatza osatzen duten alderdi guztiakordezkariek bat egin zuten aurrekontuak krisi ekonomikoak baldintzatutakoak direla esatean. Jaisieraren arrazoi nagusiak zeintzuk diren ulertzeko, Jokin Bildarratz alkateak, euskal finantza sistema nola dagoen eratu eta eta honek zertan duen eragina Tolosan argitu zuen.

Horiek horrela, Bildarratzek aurreikuspenak egiteko garaian, ohiko sarreraren artean, ondorengo baldintzak hartu dituztela kontuan argitu zuen; alde batetik, ordenantza fiskal guztiaren onartu den bezala, KPIaren arabera tarifa igogera, hau da %0,5, eta beste-tik, 2010ean, herri finantzaketarako Fondo Foralean murrizketak egongo direla, iaz bezala.

Aurrekontu Orokorraren baitan sartzen dira Udalaren aurrekontua; Iurreamendi egoitzarena; Tolargirena; Erretengibelena; Tolosa Lantzenena; Tolosa Lotzenena eta Tolosa Gasarena.

## Alderdi ezberdinen iritzia

Alkateak aurrekontuaren proposamena aurkeztu ostean, Udalbatza osatzen duten alderdietako ordezkariak hartu zuten hitza. Lehendabizikoa Ezker Batuko Enrike Torkemada izan zen. Honek hainbat desadostasun agertu zituen, horien artean; «Udalak di-tuen politiko liberatuaren kopuruarekin -gehiegi direla uste baitute-; Udalbide diruz laguntzen jarraitzearekin; eta isunen bidez atzerako



Eusko Alderdi Jeltzaleko zinegotziak eta Hamaika Bat-ekoek bozkatu zuten aurrekontu proposamenaren alde. E. EZEIZA

den diru kantitatearekin -handiegia delakoan-. Era berean, EB alderdiarentzat gizarte-zerbitzuetan diru kopurua mantentzea ez da nahikoa, ez dute ulertzen hirigintza saileangastu-partidak mantentzearena, argiteriaren gastua handiagotu egingo dela ere salatu zuen Torkemadak eta Tolomendi emaniko diru-laguntza txikiagotu egingo dela ere nabarmendu zuen, «nekazaritzari kalte eginez».

Anjel Yañez, Alderdi Popularreko zinegotziak proposamen batluzatu zuen: urriaren Ordenantza Fiskalak arautzeko garaian egin zuen bera. Hau da, zaborraren tasak eta bizilagunenak igotzearena. Andoni Iturzaeta, Hamaika Bat alderdi-ko zinegotziak ados agertu zen proposatutako aurrekontuarekin. Oskar Renedok berriz, adierazi zuen, aurrekontu estua zela, baina gauza gehienetan ados bazegoen ere, zenbait puntu ez zitzaizkiola egokiak iruditu ez ere esan zuen. Renedok proposamenaren inguruan eztabaidatzeko aukera gutxi izan zuela ere kritikatu zuen, aurreko urteetan bezala. Ezker Batukoak aipatutakoarekin bat egin zuen,

esanaz, ez zuela ulertzen zergatik ordaindu behar zitzaion Udalbiderei. Eusko Alkartasunako bi zinegotziak abstenitzea erabaki zuten, bi arrazoi nagusigatik. Alde batetik, aurrekontuan ez zelako islatzen gazteria, kultura, berdintasuna eta parte-hartze sailean artean sortutako batzorde berria. Beste-tik, pertsonalaren gaiarekin lotuta, azaldu zuen, ez duela onartzen, adskribitu gabeko zinegotzi bati liberazio erdia ematea.

## Gainontzeko gaiak

Gai «potoloena» aurrekontuena izan bazen ere, beste hainbat erabaki ere hartu ziren astearteko bilkuran. Hasteko, ohikoa den bezala, alkateak dekretuen berri eman zen eta aurreko Osoko Bilkurako akta onartu zen. 2010eko ekitaldirako Tolosako udaleko eta Iurreamendi Egoitzako plantilari onarpena eman zitzaion; baita, Udaleko datorren urterako lanpostuen zerrendari ere. Aho batez baiezkoa eman zioten ere klausula administratibopartikularren pleguari, Tolosako parke, lorategi, berdegune eta kaleko zuhaitzen

mantentze lanak egiteko. Jarraian, Iurre Peñagarikano zinegotziak Jasangarritasunerako II. Tokiko Ekintza Plana aurkeztu zuen. Hau ere eztabaidarik sortu gabe, onartua izan zen. Plenoan eztabaidatu beharreko beste gai bat, ezker abertzaleak, urriaren 13ko atxiloketen inguruan aurkeztutako mozioa izan zen. Bertan, «euskal independentisten aurkako operazio polizial eta judicial hau» salatu zuten. Idatzi honen aurrean, mozio alternatibo bat aurkeztu zuten EAJ eta EA alderdikoek, eta hau bozkatu zuten. Mozio honetan, atxiloketak arbuiztzen ziren eta «lan politikoa egiteagatik herritar-ak atxilotu eta espetxeratu izana» gaitzetsi.

Osoko Bilkurako gai zerrendako azken eztabaidagaia Aramaio-ko Udalak aurkeztutako mozioa izan zen. Kasu honetan ere EAJ, EA eta Hamaika Bat-eko ordezkari-ek idatzi alternatibo bat aurkeztu zuten, non Udalak bere babesa agertzen dion herriaren hitzari bide ematearen akusaziopean 9 urtetako inhabilitazio zigorrari aurre egin behar dion alkateari.

# «Hitza galarazi izana» kritikatu du ezker abertzaleak

## ERREDAKZIOA

Herenegun izandako Osoko Bilkuran, 2010eko aurrekontuen inguruan eztabaidatzeko garaian, hautetsi independentistek hitza eskatu zuten, beraien iritzia emateko asmoz. Honen aurrean, Jokin Bildarratz alkateak, idazkariaren gana jo zuen aukera hori posible zen edo ez zehazteko. Honek, legeak zioena irakurri zuen eta Udal ordezkarien esku utzi zuen erabakia. Honen aurrean, Oscar Renedo, PSE-EEko zinegotziak legea betetzea eskatu zuen eta ondorioz, gal-

de-erreguen atalera arte itxaron behar zutela esan zuen. Alkateak Renedoren eskaera onartzea erabaki zuen, eta hitz egin ahal izateko, osoko bilkuraren amaierara arte itxaroteko esan zion hautetsi independentistei. Ebazpen honekin desadostasuna adieraziz, «beraien hitza berritoki ere ukatua» izan zela salatu. Batzar Aretotik alde egin zuten lau hautetsi independentistek.

Herenegungo gertaeren ostean, Tolosako ezker abertzaleak «azken aldi honetan Jokin Bildarratz

alkateak, udal eztabaidetan parte hartzeko eskubidea behin eta berri-ukatu izana» salatu du. «Partehartze hitza ahotan hartuta jarduko naldiak antolatu eta propaganda hedabideetan egiteko orduan trebe bada ere», herri ordezkari-ek benetan parte hartu nahi dutenean hitza ukatzen dietela gaineratu dute hautetsi independentistek.

Tolosako alkatea «zuria eta lotsagabea» dela deritzote ezker abertzalekoek, asteartean gertatutakoaren hausnarketa egitean. Bestalde, beraien ustetan, «ezta-

## » TOLOSARDEKO AURREKONTU BATERATUA

Aurrekontu honen baitan sartzen dira Udalarena, berezkoa, eta baita Iurreamendi egoitzarena, Tolargirena, Erretengibelena, Tolosa Lantzenena, Tolosa Lotzenena eta Tolosa Gasarena (%60).

## Banaketa (30.717.218 euro)

- **Udalaren berezkoa.** 20.996.747 euro.
- **Iurreamendi egoitza.** 4.247.255 euro.
- **Tolargi.** 1.509.000 euro.
- **Erretengibel.** 1.883.135 euro.
- **Tolosa Lantzen.** 407.000 euro.
- **Gasa.** 473.781 euro.
- **Tolosa Lotzen.** 1.200.300 euro.

## Pertsonal gastua

- **2008.** 9.352.961 euro.
- **2009.** 10.322.391 euro.
- **2010.** 10.096.770 euro.

## Ondasun arruntren erosketak eta zerbitzuak

- **2008.** 13.846.070 euro.
- **2009.** 13.755.141 euro.
- **2010.** 11.557.158 euro.

## Inbertsioak

- **Urteroko udaletzeko mantentzea.**
- **Erretengibel.** Bi bloke etxebizitzia, Alde Zaharrean: 2.414.000 euro.
- **Haurreskola, Abastosen.** 1.200.000 euro.
- **'Plan E' edo 'Zapatero plana'.** 1.546.803 (aurrekontutik kanpo).
- **Lehiberri, institutu berria.** 1.000.000.

## 2009tik datozen inbertsioak

- **Kolektorearen eraginez.** Berazubirik zubi berrira doan bidegorria. Lizardi plaza eta Zumardi Handia (1.100.000 euro).
- **Albada eta Urkizuko zentro sozialak.** 340.000 euro.

## Inbertsioak

- **2008.** 8.917.000 euro.
- **2009.** 7.293.000 euro.
- **2010.** 5.096.105 euro + 'Plan E'.

baidari beldurra dio Bildarratzek, horrek adierazten du, bere buruari entzuten ohitua dagoela». Horren adibidetzat jartzen dute «bere taldeko ez eta soldata baten truke men egitera ohituta dauden alderdietako ordezkariak inguratuta dagoela».

Ezker abertzaleak ohartarazi nahi du, hala ere, «jarreraren antide-mokratiko eta errepresiboaren bidez ez dutela beraien jarduna isiltzea lortuko».

Hala, argi diote, aurrera begira ere, Tolosako ezker abertzaleak ez duela urrats bat bera ere atzera egingo eta herritar eta ordezkari gisa dagokien eskubideari ez diotela uko egingo. Era berean, behar denean aurrean izango dituzten bidegabekeriei «alto» esango dietela nabarmendu dute.

# Neguko kultur egitarau «erakargarria eta kalitatezkoa» aurkeztu dute

**Kultura** » Andoni Iturzaeta zinegotziak gain, Juan Mari Beltran, May Gorostiaga eta Anjel Alkain izan ziren aurkezpenean.

## IMANOL GARCIA

«Krisi urtea izanik ere, pentsatzen dugu asmatu dugula hurrengo hilabeteetako kultur egitarauarekin eta erakargarria eta kalitatezkoa dela», azaldu zuen atzo Andoni Iturzaeta Tolosako Kultura zinegotziak neguko kultur egitarauaren aurkezpenean. Berarekin batera egitarauaren zenbait protagonista izango direnak ere egon ziren: Juan Mari Beltran musikaria, eta May Gorostiaga eta Anjel Alkain aktoreak. Bakoitzak bere emanaldiaren inguruko azalpenak eman zituen.

Iturzaetak nabarmendu zuenez, egitaraua «orekatua» eta adin guztiei zuzendutakoa da. Ekitaldiak «euskalgintzarekin oso lotuta» daudela dela zioen zinegotziak, «nahiz eta arte eszeniko ezberdinak izan, gehienak euskal kultur eragileek egindakoak dira».

Berritasun bezala, abonauk erosteko aukera izango da. «Departamentuaren apustua da, zine-



May Gorostiaga, Anjel Alkain, Juan Mari Beltran eta Andoni Iturzaeta, aurkezpenean. I. GARCIA

marekin egiten ari garen bezala, abonuen sistema jartzearena», azaldu du Iturzaetak. Hala 40 euro ordainduta lau emanaldietara joateko aukera izango da, 10 euro arrezutzuz. Emanaldi horiek *El Club de las Mujeres Invisibles*, *Xabinaitor*, *Una noche con Gabino* eta *Gerrika* izango dira.

Zinegotziak ere nabarmendu zuen datorren urtean Topic aretoak izango duen garrantzia kultur egitarauan. «Ekitaldiak bertara

eramaten hasiko gara eta ia emanaldien erdia Topic-en egingo dira», azaldu zuen. Tolosari «falta zitzaion aretoa» dela gaineratu zuen.

## Txalaparta protagonista

Aurkezpenean izandako hiru gonbidatuek euren emanaldietako zenbait xehetasun eman zituzten. Lehenengo ikuskizuma Ttakun Ttan Ttakun izango da, urtarrilaren 9an, Leidorren, Mundua To-

losan zikloaren baitan. Juan Mari Beltran musikariak gain, Kukai dantza taldeak eta Tanttakak parte hartu dute ikuskizunaren sorreran.

Beltranek azaldu zuenez, «proiektu baten taularatzea da Ttakun Ttan Ttakun, txalaparta proiektuarena». Hasieran liburu bat idatzi zuen txalapartaren inguruan. Gero etorri zen diskoa eta DVDa ere. Azkenik ikuskizum baten bilakatu da instrumentuaren

inguruko proiektua. Horrek guztiak zuzeneko emanaldia behar zuelako sortu zuten Leidorren erakutsiko duten ikuskizuna. Bertan, txalapartaren doinuez gain, dantzak eta eszenografiak protagonismo handia hartuko dute.

## «Barre egiteko obra»

Gorringo taldeak *Xabinaitor* antzezlan emango du otsailaren 5an. Izen bereko komikian oinarritzen da eta antzerki taldeko Anjel Alkainek zioen, «tolosarrek barre egiteko aukera izango dute euskarazko obra batekin». Villabonan egindako estreinaldian helburua lortu zutela gaineratu zuen aktore asteasuarrak.

Aktore taldea eskualdekoa da eta bai telebistan eta bai *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* antzezlan arrakastatsuan batera ibilitakoak.

## Ikusleekin osatzen den obra

Bere aldetik, May Gorostiagak Ahozkotasunaren Jaialdiaren aipamena egin zuen eta «kanpoko zein Euskal Herriko artistak izango direla azaldu zuen. *May Gorostiaga... presente!* bere antzezlanaren estreinaldia egingo du martxoaren 8an Topic-en. «Nire aurreko ikuskizunekin egindako puzzle moduko bat da», azaldu zuen aktore tolosarrak. «Ikusleek parte hartzen dute hasieratik. Berriek ematen dituzte proposamenak eta inoiz ez da berdina izaten, inprobisazioa sortzen da eta jolas ten dugu».

## » EGITARAUA

### Urtarrila

- **Hilak 3, igandea.** Les Petits Chanteurs de Saint-Marc abesbatza, Leidorren, 19:00etan.
- **Hilak 4, astelehena.** *Musika Tresnen Fabrika*, Topic-en, 17:00etan. Haur ikuskizuna.
- **Hilak 9, larunbata.** Juan Mari Beltran, Kukai eta Tanttakaren *Ttakun Ttan Ttakun* ikuskizuna, Leidorren, 20:30ean.
- **Hilak 9 eta 10, larunbata eta igandea.** Los Duendes txotxongilo taldearen *La Caperucita no, gracias*, Topic-en, 17:00etan (9an) eta 12:30ean (10ean).
- **Hilak 14, osteguna.** Ipuin konta-

- keta haur liburutegian, 18:00etan.
- **Hilak 15, ostirala.** *El Club de las Mujeres Invisibles* antzezlan, Leidorren, 20:30ean.
- **Hilak 15, ostirala.** Amaia Zubiria Frontoi kafetegian, 23:00etan.
- **Hilak 23, larunbata.** Bertso jaialdia, Txolarre Irratiaren 10. urteurrena dela-eta, Leidorren, 18:00etan.

### Otsaila

- **Hilak 4, osteguna.** Ipuin kontaketa haur liburutegian, 18:00etan.
- **Hilak 5, ostirala.** *Xabinaitor* antzezlan, Leidorren, 20:30ean.
- **Hilak 6, larunbata.** Aiz-Orratz

- elkartek antolatzen duen Inauterietako Haur Jaialdia, Leidorren, 16:30ean.
- **Hilaren 11tik 16ra.** Inauteriak.
- **Hilak 20, larunbata.** Tatxin eta Tatxan pailazoan *Abenturak* emanaldia, Topic-en, 17:00etan.
- **Hilak 26, ostirala.** Yolanda Arrietaren *Off-On* aurkezpen musikatua, Topic-en, 20:30ean.

### Martxoa

- **Hilak 4, osteguna.** Ipuin kontaketa haur liburutegian, 18:00etan.
- **Hilak 5, ostirala.** Kirmen Uribe eta Mikel Urdangarinen *Internet kafe* emanaldia, Topic-en,

- 20:30ean.
- **Hilak 6, larunbata.** Pirritx, Porrrox eta Marimototsen *Iriren lagunak* emanaldia, Leidorren, 17:00etan.
- **Hilaren 11tik 14era.** Ahozkotasunaren Jaialdia.
- **Hilak 8.** Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta, data horren inguruan ekitaldiak izango dira.
- **Hilak 12, ostirala.** Gabino Diegoren *Una noche con Gabino*, Leidorren, 20:30ean.
- **Hilak 13 eta 14, larunbata eta igandea.** *Erreka Mari* txotxongilo antzezlan, Topic-en, 18:00etan (13an) eta 12:30ean (14ean).

- **Hilak 18, osteguna.** May Gorostiagaren *May Gorostiaga... ¡Presente!* obra, Topic-en, 20:30ean.
- **Hilak 26, ostirala.** Aukeran dantza taldearen *Gemika* emanaldia, Leidorren, 20:30ean.
- **Hilaren amaieran edo apirilaren hasieran.** Gipuzkoa Encounter.

### Aranburu jauregia

- **Urtarrilaren 16a arte.** Mikel Azpillagaren pintura erakusketa.
- **Urtarrilaren 6tik 10era.** Natura 2000 erakusketa ibiltaria.
- **Otsailare 26tik apirilaren 10era.** Aurrez Aurre emakume artisten lanak.

# Kortxea Doktoarearen abenturak Topic-en

## ERREDAKZIOA

Tolosan egingo den hurrengo ekitaldia eskualdeko Sointek taldearen *Musika Tresnen Fabrika* izango da, datorren astelehenean, urtarrilak 4. Topic aretoa izango da emanaldia, 17:00etan. Xurdin pertsonaiaren abenturak taularatu zituen taldeak oraingoan beste pertsonaia batekin dator, Kortxea Doktoarearen izeneko.

Etxeko txikienentzako pentsatuta dagoen ikuskizuna da *Musika Tresnen Fabrika*. «Kortxea Doktoare fabrikako lutierra da», azaltzen dute ikuskizuneko arduradunek. «Pixka bat txoratu dago eta gauzak asko nahasten ditu. Musika tresnak nola erabiltzen diren erakustez arduratzen da. Gainera dantzatuta eta kantatu egiten du». Filomena da emanaldiaren beste

personaia. «Kortxea jaunari zentzutasuna jartzen saiatzen da, eta bide batez fabrikari txukuntasuna mantentzen du», diote. «Instrumentuak jotzen ditu Kortxea jaunarekin batera. Kantatu eta dantzatuta ere egiten du». Hirugarren pertsonaia Koxme da, Kortxea Doktoare eta Filomenaren laguntzaile eta mekaniko bezala argitzen dena.



*Musika Tresnen Fabrika* emanaldia Ibarren. HITZA



# Ohikoa unibertsal bihurtuta

**Kultura** » Mikel Azpillaga artista donostiarrak 2005etik 2008ra bitarte eginiko koadroak daude ikusgai Aranburu jauregian, urtarrilaren 16ra arte.

## INIGO TERRADILLOS

Mugimenduz beteriko erretratuak, ezagun ez denari edo direnei eginak, eta mezu bereziak zabalatzeko inolako asmorik ez dutenak. Interesik gabekoari edota ohikoa denari oportunitate edo opari bat ematen zaio unibertsal bihurtuz, istorio bat emanez edota bizia luzatuz. Horixe islatzen du Aranburu jauregian urtarrilaren 16ra arte ikusgai dagoen koadro multzoak.

Bigarrenez dator Mikel Azpillaga margolaria (Donostia, 1952) Tolosara bere lana erakustera. Duela lau urte, 2005ean margolari donostiarrak 2003an eta 2004an egindako lanekin osatu zuen erakusketa. Orain, berriz, 2005etik 2008ra bitarte egin duena jarri du guztien begitara.

## Autodidakta baten begirada

Azpillagak bizitza ikusteko duen modua irudikatzen du bere koadroetan. Autodidakta da, beraz, bere kabuz ikasi du, eta urteen poderioz joan da hobetuz, berrituz eta eraldatuz. «Protagonismoa behar ez dutenen kastakoa» da, eta horregatik margotzen du anonimatuaren gerizpera. Dena den, koloreek salatzen dute, ezer ez baita

go bere lanetan kasualitatez, «berrak bakarrik mugitzen dakien kaleidoskopio bat bezalakoa da».

## Gauza txikien poesia

Bere eskuetan duena pintatzen du donostiarrak: familia, etxea, kalea... Pintura hiritarra dela esan daiteke, baina natura ere aipatu behar da, bere koadro guztietan azaltzen baita. Hala, osagai horiekin mugimenduz beteriko lana osatzen du, ia beti argazki bat izaten duelarik abiapuntu.

Barne-barneko zerbait da emaitza, eta erakusketa ikusten ari denak besteen bizitzetan zokomiran aritzearen sentsazioa izango du. Gainera, bere erretratuak pertsonaiek axolagabe dirudite begiratuak eta pintatuak izateaz.

## Forma errealistak eta molde informalak

Euskarri desberdinetan egiten du lan Azpillagak, baina, batez ere, zura gaineen. Eta teknika desberdinak baliatzen ditu. Libreki lan egiten du, eskuari inprobisatzeko aukera emanez, eta horregatik, bere emaitza forma errealisten eta molde informalen arteko nahasketa da. Halaber, bere lanean bada gainerako guztia ez bezalakoa dena, egileak «paleta koadro» bezala definitzen duena. Beste koadroak pintatzeko erabili dituen olio nahasketak prestatzeko euskarriak dira, eta bere jardueraren «parte» direnez erakusketaren osagarri dira beretzat.


Azkenaldian, pintura indartsuagoa egiten du, grinatsuagoa, koloristagoa, ausartagoa izango balitz bezala. Emaitza aberatsa eta orekatua da, eta bere koadroek harri-dura sortzen dute.



Goian, Donostiako Kontxako pasealekuan jendea paseatuz, eta behean hainbat erretratu.



Guztiak ez dira erretratuak eta naturak ere garrantzi handia izaten du bere koadroetan.



Azpillaga Aranburun, 2005ean. NL

ILEAPAINDEGIA

# Joseba

ileapaindegia

**Urte berri on !**

Nafarroa etorb. 12 • Tolosa  
Tel.: 943 65 26 98

**IXABEL OINETAKOAK**

lurre auzoa 16 • 943 670 277

@ **Ikus-entzunezkoak.** Webgunean, ikus-entzunezko ugari topatuko dituzu. Festa edota ekitaldi berezien bideoak ditugu ikusgai. Horretaz gain, argazki bilduma handia dugu herrira, atalka nahiz ekitaldika antolatuta. Era berean, HITZAren webgunean eskualdeko azken albiste berri izateko aukera ere izango duzu eta baita irakurleen iritzia irakurtzeko aukera ere. Bestalde, parte hartzeko hainbat atal ere baditugu; eztabaida eta inkesta desberdinen gunea esaterako:

[www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info)

## 2010ean ere Irakurketa Taldea osatu nahi du Udalak

**Amezketak** » Urtarrilean hasi eta ekainean amaitzen den egitasmoa da; hilean behin bitzen dira.

### ERREDAKZIOA

Amezketako Udalaren laguntzaz eta Xabier Mendiguren idazlearen gidaritzapean azken bi urteetan «bide polita» egin du Irakurketa Taldea eta hori dela eta datorren urtean, 2010ean, ere egitasmoarekin jarraitu nahi du Udalak. Taldearen helburua da «euskal literatura zertxobait ezagutzeko eta euskaraz idatzitako zenbait nobela eta ipuin irakurtzea».

Horiek horrela, 2010ean ere Udala prest dago egitasmoa aurrera eramateko. «Beraz, nahi baduzu talde giroan bost edo sei hilabete zehar hilerko liburu bat irakurri eta meriendatxoa egin geure mailan irakurritako liburua komentatzeko, ez utzi aukerari ihes egiten», esan du Udalak.

Aurreko urteetan urtarrilean hasi eta ekainean amaitu dute egitasmoa eta hilerko ordubete ematen dute bilduta. «Bileran irakurritako liburua komentatzen dugu eta hurrengo hilabeterako beste bat hautatzen dugu, mokadutxo bat janez eta ardo bat edanez», argitu dute. Datorren urteko lehen saioa urtarrilaren 11n izango da. Informazio gehiagorako edo izena emateko deitu Nekane Bautistari, 630 579 554 zenbakira.

## Laburrak

### Kotilioia eta 'Gure Txokoa Oroituz' jaia Kantinan

**VILLABONA** » Oinkarik Olaederra kiroldegiko tabernan, Kantinan, kotilioia antolatu du garuko, 00:30etik aurrera. Bestalde, urtarrilaren 2an *Gure Txokoa Oroituz* jaia egingo dute. 21:00etan hasiko da eta 25 euroren truke afaldu ahalko da.

### Txintzarri Abesbatza kantuan meza nagusian

**ALEGIA** » Txintzarri Abesbatzak abestu egingo du bihar, urtarrilak 1, 11:15an izango den meza nagusian. Ondoren, 12:15ean, udal hautetsiek mandarinak eta intxaurrek banatuko dituzte plazan.

### Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketa

**AMEZKETA** » Gaur 16:00etatik aurrera Euskal Herriko Mus Txapelketako herrietako kanporaketa izango da Txindoki jatetxean. Bikote garaileak afari eder bat irabaziko du.

# «Oso pozik» Gipuzkoakoan lortutako emaitzekin

**Pilota** » Aurrera-Saiazeko pilotariak guztira bost txapel lortu dituzte eta hiru finaletan azpitxapeladunak izan dira.

### IMANOL GARCIA

Aurrera-Saiaz pilota eskolakoak «oso pozik» daude Gipuzkoako Kluben Arteko Txapelketan lortutako emaitzekin. Guztira zazpi final jokatu dituzte, horietako bat eskolako bi talderen artean. Bost txapel eskuratu eta hiru finaletan azpitxapeladun izatea lortu dute. Luis Galarraga eskolako ardura-dunak azaldu duenez, «oso ondo ibilgara txapelketan. Lesio aldetik ez dugu arazorik izan eta pozik gaude jokatzeko jarraitzeko».

Aurreko astean jokatu zituzten azken lau finalak eta horietatik bi irabazi eta bigaldu zituzten Aurrera-Saiazeko pilotariak. Lehen mailako kadeteetan Aritz Zelaia eta Jon Elustondok 22-8 galdu zuten Oiarperen aurka. Partida askoz pa-

rekatuagoa izan behar zuen, baina eskualdekoak oso urduri aritu ziren eta ez zuten bere maila eman. Oiarzuarek bere partida egin zuten txapela bereganatuz.

Jubeniletan banaka, Ibai Arratibelek 22-6 irabazi zion Oiarpeko ordezkariori. Erraz eraman zuen partida, espero baino zailtasun gutxiagorekin. Arratibel iaioa da buruz-burukoan, defentsa ona du eta baita jokoa ere tantoak egiteko.

Lehen mailako jubeniletan ere irabazi zuten Aurrera-Saiazekoak. Xabi Urbietak eta Txomin Zinkunegi 22-16 irabazi zieten Hernanikoei. Garaipena lortu bazuten ere, nahiko sufritu behar izan zuten eskualdeko pilotariak. Ez zuten bere maila guztiz eman, bestela erosoago eraman ahal izango zuten txapela.

Bigarren mailako jubenilei dagokionez, Andoni Egigurenek eta Hodei Arregik 22-16 galdu zuten Mundaroren aurka. Oso partida parekatua izan zen. Urduri aterazi ziren Aurrera-Saiazekoak eta ez zuten guztiz bere maila eman.



Jubenil mailako pilotariak Luis Galarragarekin: Urbietak eta Egiguren (zutik), eta Zinkunegi eta Arregi (makurtuta). HITZA



Kadete mailan aritu direnak: Labaka, Elustondo, Zelaia eta Maiza. HITZA

**Orain, Euskadiko Txapelketa**  
Gipuzkoako Txapelketa bukatuta, urtarrilean Euskadiko Kluben Arteko Txapelketa hasiko da. Hegoaldeko lau eskualdeetan maila bakoitzeko lau talde onenak lehiatu-

ko dira. Aurrera-Saiaz eskolako hamaika talde ariko dira txapelketa horretan. «Guretzat oso txapelketa ona da», azaldu du Galarragak, «pilotariak maila oneko partidak jokatzeko aukera baitute».

## Mutilak laugarren eta neskak seigarren klub arteko txapelketan

**Tolosa** » Tolosaldea IKT igeri taldekoek iragan asteburuan lan txukuna egin zuten Usabalen izandako lehian.

### ERREDAKZIOA

Euskal Herriko igerilari onenak bildu ziren pasa den asteburuan Usabal kiroldegian Euskal Herriko Igeriketa Kluben arteko Txapelketan parte hartzeko. Bertan izan ziren, nola ez, Tolosaldea IKTko igerilariak eta marka onak egin zituzten.

Mutilen taldeak laugarren egin zuten, lehenengoa Bardulia taldea izan zelarik. Bigarren markarik onena, aldziz, Getxorenaren izan zen eta hirugarrena Bidasoa taldearena. Galdakoa eta Iruñeako Amaia taldeek mailaz jaitsi behar izan dute.

IKTko neskei dagokionez, hauek seigarren marka onena egin zuten. Lehenak Bidasoa izan ziren, Fortuna bigarren, Galdakoa

hirugarren, Oarsoaldea laugarren eta Judizmendi bosgarren. Maristas eta Getxo talde bizkaitarrak mailaz jaitsi dira.

### Lan txukuna

Nahiz eta lehen postuak ez lortu Tolosaldea IKT taldeko igerilariak lan txukuna egin zuten, izan ere, mutilen kasuan, laugarren postua lortzea ez da lan makala eta neskei dagokionez, mailaz ez jaitsi izana ere nabarmenezkoa da igerilariak oso gazteak direlako.

## Iragarki laburrak

### LANA

■ **Bigi garbitasunak.** Alfonbrak, etxebizitzak, bulegoak, bestelako lantokiak eta abar garbitzeko prest gaude. Deitu inongo konpromisorik gabe honako telefono zenbakietara: 638 94 46 04 (Gurutze) edota 695 70 82 71 (Belen).

## Olio bilketaren sistema aldatuko da bihar

### ERREDAKZIOA

Tolosaldeko Mankomunitateak argitu duenez, olio bilketaren sistema aldatu egingo da bihartik aurrera. Hortaz, orain arte izaten zen Puntu Berde Mugikorraren zerbitzu orokorra ez da egongo bihartik aurrera. Bertan jasotzen ziren hondakin arriskutsuak (fluoreszenteak, bateriak, pilak, eta abar) Puntu Berde Mugikorra mantentzen den leku eta ordutegi hauetan jaso ahalko dira: Tolosan, Triangulon, hileko bigarren eta azkeneko

larunbatetan, 09:00etatik 13:00etara; eta Villabonan, Errebote plazan, hileko azkeneko astearteetan, 09:00etatik 13:00etara.

Honez gain, hondakin arriskutsuak Tolosaldeko San Blas Garbigunean jasoko dituzte asteleheneetik ostiralera 09:00etatik 12:30era eta 16:00etatik 19:00etara etal larunbatetan 09:00etatik 13:30era.

Sukaldeko olioak plastikozko botila edo brik ontzietan edota beirazko botiletan, ondo itxita, utzi beharko da.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



# 'Ahotsak.com', ahazko ondarea gordetzeko lanean

**Gizartea** » Herri hizkerak eta ohitura zaharrak ez galtzeko 2010ean 150 bat elkarrizketa egin nahi dituzte Tolosaldean.

REBEKA CALVO

Ahotsak.com egitasmoa Tolosaldera ere iritsi da. Euskal Herriko ahazko ondarea eta herri hizkerak katalogatu eta hedatzea du helburu, hau da, «gure herrietako adineko jendea elkarrizketatu eta euren euskara eta bizipenak jasotzea eta herritarren artean zabaltea», argitu du Miren Artetxe Ahotsak.com-eko kideak. 2010. urtean bera ibiliko da Tolosaldean alde batetik bestera lan horretan.

Berez, egitasmoa 2002-2003 urteetan jaio zela esan daiteke. Bahardugu euskara elkarrearen eskutik eta lehenik eta behin Eibar inguruan hasi ziren lanean. «Ondorengo 3 urteetan, 2004-2007 bi-



Artetxe Tolosaldean ariko da «herriz herri eta auzoz auzo» lanean. R. CALVO

tartean, bilketa lana hasi zen eta jasotako materiala lantzen hasi ginen. Hortik aurrera, Interneteko webgunea ([www.ahotsak.com](http://www.ahotsak.com)) atontzen jardun dugu», argitu du Artetxe.

Webgunea 2008an aurkeztu zuten, baina proiektuak aurrera jarraitzen du, etengabe ari baitira materiala biltzen, lantzen eta datu-basea eguneratzen. Tolosaldearen txanda iritsi da jada, orain arte el-

karrizketa ugari egin dituzte, baina «lanik potoloena» 2010. urtean egingo du Artetxe. 2012. urtean barte 300 elkarrizketa inguru egitea espero du. «Gure atarian 2012. urterako euskal herri guztietako lekukotasunak izatea da helburua», argitu du egitasmoa kideak.

## «Herriz herri auzoz auzo»

«Gure asmoa herriz herri eta auzoz auzo aritzea da», argitu du Ar-

tetxe. Premisa honetatik abiatuta Ahotsak.com-eko kideak Tolosaldeko txoko guztiak zeharkatuko ditu 2010. urtean zehar.

«80 urtetik gorako hiztunak dira egokienak. Gure irizpideak hiztun ona izatea, buruz ondo egotea eta ahalik eta urte gehien edukitzea dira. Proiektu honekin hasi zirenean 1900. urtean jaiotakoekin hasi ziren, Gerra Zibila heldu bezala ezagutzen zutenekin, baina orain horrelako jendea oso gutxi gertzen da eta beraz, 80 urtetik gorakoak ere Gerra Zibilaren ume ikuspegi dute», dio.

2010. urtean zehar Tolosaldean 150 elkarrizketa egiteko asmoa du Artetxe eta horretarako oso baliagarriak dira hitzarmenak, nahiz eta Tolosaldean oraingoz Berastegiko Udalarekin bakarrik sinatu duten. «Hori iritsi bitarte gure asmoa kotxea hartu eta herrietan gora eta behera ibiltzea da. Zailena dena den, kontaktuak egitea da. Guk baditugu batzuk jada, baina ahazko ondarea zein etnografia jasotzeko ahal den jende gehienarekin hitz egin behar dugu eta horretarako interesa duen edonori, norbanakoa izan zein elkarte bat izan, gurekin harremanetan jartzeko eskatu nahi diot, bai 663 998 264

telefono zenbakira deituta edota [miren@ahotsak.com](mailto:miren@ahotsak.com) helbidera idatzita».

Artetxe dioenez, «denetatik» kontaktatzen diote eskualdeko edadetuak: «Bizimoduaren inguruko galderak egiten dizkiet eta horrela soroko lanen, jateko ohituren, eskolako kontuen... berri izateko aukera izaten dut. Guztiek, hala ere, gauza asko dituzte komunean, baserrietan argindarrik ez zutela, bide luzea egin behar zutela askotan lantokietara iristeko...».

Egiten dituzten grabazio guztien bideoak [www.ahotsa.com](http://www.ahotsa.com) webgunean jartzen dituzte, denen eskura. Bideo horietan bildutakoa herrira eta gaika sailkatzen dute, ondoren pasarte horiek internet bidez ikusi ahal izateko. Helburua guztia webgunean jartzea da, baina horrek denbora eskatzen du, eta «dena jarriko badugu ere, denbora pixka bat behar dugu».

Artetxe, beraz, Tolosaldeko hizkera zein garai bateko bizimodu ezagutu ahal izateko inguruko edadetuak bildu nahi du, baina bestelako eskaerarik ere badu: «Euskal Herrian jende askok ditu kutxetan ahaztutako zinta zaharrrak eta horiek ere berreskuratu nahi ditugu».

## » 'AHOTSAK.COM'-EN AURKITU DAITEZKEEN ESQUALDEKO TESTIGANTZAK

- **Berastegin ekainean egindako tertulia.** Ramon Saizar Matxinea (1938), Juan Malkorra Urkizu (1937), Justa Saizar Etxeberria (1938), Agustina Saizar Matxinea (1928), Bixente Etxeberria Señorena (1930) eta Joxe Saizar Matxinea (1934) aritu ziren.
- **Martina Agirre Zuriarrain.** Abaltzisketa (1930. urtean jaioa).
- **Teresa Agirrezabala Altuna.** Amezketak (1935).
- **Juan Bautista Aldunberri Armentariz.** Elduain (1927).
- **Patxi Aranalde Lasa.** Berastegi (1932).
- **Miguel Arizeta Esnaola.** Bidania (1935).
- **Katalina Azpiroz Alda.** Berastegi (1910).
- **Florentzia Azpiroz Nazabal.** Berastegi (1924).
- **Joakin Azpiroz Nazabal.** Berastegi (1918).
- **Joxe Azpiroz Nazabal.** Berastegi (1915).
- **Simona Azpiroz Nazabal.** Berastegi (1926).

- **Dionisio Balerdi Mujika.** Tolosa (1924).
- **Andres Beloki Urreta.** Bidania (1927).
- **Maria Tomasa Belamendia Galarra.** Bidania (1927).
- **Maritxu Biain Ezama.** Beizama (1936).
- **Miguel Biain Ezama.** Beizama (1938).
- **Maria Dorronsoro Aramendi.** Bidania (1930).
- **Dolores Egües Saizar.** Berastegi (1928).
- **Lucia Egües Saizar.** Berastegi (1925).
- **Jose Maria Esnaola Otaegi.** Beizama (1925).
- **Ana Etxeberria Etxeberria.** Amezketak (1922).
- **Feli Etxeberria Galarza.** Amezketak (1926).
- **Andres Etxeberria Iztueta.** Berastegi (1942).
- **Maria Ezeiza Jauregi.** Bidania (1926).
- **Margarita Etxeberria Murua.** Amezketak (1935).

- **Jose Julian Garciaena Arregi.** Berastegi (1929).
- **Esteban Garciaena Belaunzaran.** Berastegi (1929).
- **Evaristo Garciaena Uzkudun.** Berastegi (1923).
- **Maria Andresa Gaztañaga Dorronsoro.** Abaltzisketa (1921).
- **Maria Gorostidi Zubeldia.** Aduana (1931).
- **Domingo Gurrutxaga.** Berastegi.
- **Maria Huizi Apezetxea.** Berastegi (1933).
- **Xinfo Iparragirre Intxaurren.** Berastegi (1932).
- **Patxi Iriarte Iruretagoiena.** Beizama (1913).
- **Martina Iturbe Zubeldia.** Tolosa (1914).
- **Flora Iztueta Lizaso.** Berastegi (1918).
- **Satur Iztueta Lizaso.** Eldu. Berastegi (1920).
- **Antonio Jauregi Maiza.** Tolosa (1931).
- **Maria Jauregi Jauregi.** Bidania (1930).

- **Maria Karrera Agirrebarrena.** Amezketak (1935).
- **Joan Labaka Labaka.** Beizama (1921).
- **Visitacion Larrinaga Arresegor.** Irura (1920).
- **Fermin Lasa.** Bidania (1917).
- **Grabazio berean bere emaztea.** Bidaniako Juana Zinkunegi (1917), ere entzun daiteke.
- **Pedro Lecea Iparragirre.** Berastegi (1929).
- **Lucio Lizartza Esnaola.** Berastegi (1932).
- **Juan Mujika Esnaola.** Bidania (1922).
- **Simon Nazabal Etxeberria.** Elduain (1929).
- **Maria Angeles Olaetxea Saizar.** Berastegi (1930).
- **Manuel Olazabal Iturbe.** Beizama (1936).
- **Pedro Olazabal Peñagarikano.** Beizama (1935).
- **Dionisio Otaegi Oruezabal.** Beizama (1931).
- **Maria Dolores Otaegi Iturritza.** Beizama (1930).

- **Manuel Otaegi Txapartegi.** Beizama (1936).
- **Matiilde Otaño Labaka.** Beizama (1924).
- **Patxi Saizar Etxeberria.** Berastegi (1933).
- **Jose Mari Senperena Esnaola.** Bidania (1924).
- **Tomasa Toledo Ezeiza.** Bidania (1925).
- **Maria Dolores Ugarte Mendia.** Beizama (1932).
- **Maria Teresa Urkizu Garaín.** Elduain (1933).
- **Gregorio Yeregi Aranalde.** Berastegi (1940).
- **Patxi Yeregi Aranalde.** Berastegi (1928).
- **Maria Zabala Egues.** Elduain (1914).
- **Juan Zinkunegi Elustondo.** Bidania (1939).
- **Joakin Zubeldia Zabala.** Abaltzisketa (1923).
- **Joakina Zubillaga Agirrezabala.** Tolosa (1929).
- **Maria Zubillaga Agirrezabala.** Tolosa (1924).

## U Urteurrenak

Lehenengo urteurrena  
**EUSEBIA ARRARAS BARAIBAR**

2008ko abenduaren 30ean hil zen 82 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.  
-Goian bego-

Seme-alabak: Patxi Lazkano eta Karmele Zenarruzaubetia, Jose Miguel eta Milagros Saralegi, Itaskun eta Manuel Ekerra, Maite (†), Irati eta Edurne Sanchez, Iñaki eta Eduard, Eneiz eta Aitor, Egoitz eta Josune, Ariz, Unai eta Uxue.  
Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizue eta arren etor zaitezela URTARRILAREN 3AN goizeko HAMABI ETXERDIETAN Tolosaldeko SAN FRAZTISKORO paroki elizan egingo den urteurren mezetara. Addez aurretik, mila eskier.  
Helbidea: Euskal Herria 7, 1-C

IBARRA  
2009ko  
abenduaren 31

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
DOAN agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • [tolosaldean@tolosaldekohitza.info](mailto:tolosaldean@tolosaldekohitza.info) / Tel.: 943-65 56 95

# Binakako Txapelketan sake bakararra, leitzar bakararra eta iazko txapeldun bakararra

**Pilora** » Barriola oraindik osatu gabe aurkitzen denez, Bengoetxea izango da eskualdeko ordezkari bakararra.

## ERREDAKZIOA

Aspe eta Asegarce enpresetako pilotarien Eskuz Binakako Txapelketa atzo aurkeztu zuten. Oinatz Bengoetxea leitzarrek Ruben Belokirekin osatuko du bikotea eta eskualdeko ordezkari bakararra izango da; Abel Barriola oraindik lesiotik erabat sendatu gabe aurkitzen da.

## Fernando Goñi kanpora

Binakako Txapelketa Juan Martinez de Irujo-Fernando Goñi bikoteak irabazi zuen iaz. Aurten ordea atzalaria Txapelketa at utzi du Aspe enpresak, «berrikuntzen aldeko apustua» egin duela argudiatuz. Erabakiak polemika sortu du, hala eta guztiz ere ez da enpresak

antzeko erabakia hartzen duten lehen aldian. Urrutira joan gabe, aurten ere txapelketa at geratuko den Peio Martinez de Eulatek ez zuen iazko lehian parte hartzerik izan, nahiz eta aurreko bi txapelketetan garaile irten, 2006an Martinez de Irujorekin, eta 2007an Xala aurrelari zuela.

Asperen adarrean, Abel Barriolarren eta Goñi III.aren lekua, Aitor Zubieta eta Mikel Beroizek beteko dute.

Asegarcek burukomin gutxiago izan ditu bikoteak osatzerako unean eta iazko lau bikoteen aldeko apustua egin du.

## Bi berrikuntza esanguratsu

Aurtengo Txapelketaren berrikuntza garrantzitsuetako bat ondorengo ia izango da: partidatan sake bakararra egongo da, ondorioz, pasa egin ezker ez dute bigarren aukerarik edukiko eta tantoa aukeraren markagailura igoko da.

Sistema hori erabili berri dute Mastersean, eta 2010eko txapel-

keta denetan ere hala izango dela jakinarazi zuten atzo, Donostian, Kurusaalean egindako aurkezpenean.

Bigarren berrikuntza Kiroltasun Saria izango da. Txapelketa pilotari bati emango diote trofeo hau eta horretarako ondorengo irizpideak hartuko dira kontuan: aurkariarekin erabateko errespetuz neurtzea; egun gizartearen dau den balioekin bat, jokaera egokia eskaintzea eta komunikabideen aurrean behar bezalako irudia azaltzea».

## » ESKUZ BINAKAKO PILOTA TXAPELKETA

### Bikoteak

■ **Asegarce.** Bengoetxea VI.a-Beloki; Olaizola II.a-Mendizabal II.a; Olaizola I.a- Patxi Ruiz eta Berasaluze VIII.a-Begino.

■ **Aspe.** Irujo-Beroiz; Gonzalez-Laskurain; Titin III.a-Pascual eta Xala-Zubieta.



'Tortura erabaziz egindako galdeketa' salatu dituzte. HITZA

# Villabonan eta Amezketan presoek aldeko ekimenak

**Politika** » Inkomunikazioaldian torturak salatu zituzten azken atxilotuek. Tartean Ayestaran, Lopez eta Mujika aurkitzen dira.

## ERREDAKZIOA

Duela hilabete Espainiako Poliziak eta Guardia Zibilak 30 gazte gora atxilotu zituen, Segi «berrosatzen» ari zirelakoan. Tartean Tolosaldeko Mikel Ayestaran, Irati Mujika eta Aritz Lopez aurkitzen ziren.

30 gazte hauek inkomunikazio garaian torturak salatu zituzten: «Besteak beste, poltsa jarri zieten buruan arnasarik gabe uzteraino, jo egin zituzten, biluztu, sexualki jazarriak izan ziren, ariketa fisikoak eginarazi zizkieten, mehatxatu eta iraindu egin zituzten».

Poliziak eta Guardia Zibilak «tortura erabiliz egindako galdeketa» beste hainbat gazteren izenak lortu omen zituen eta atzo hauek prentsaren aurrean agertu ziren, Hernanin, eurek egin duten lana «erabat agerikoa» izan dela aldarrikatzeko eta bizi duten «egoeraren larritasuna» salatuzko asmoz.

## Villabonan eta Amezketan

Urteko azken egun honetan preso eta iheslarien aldeko elkarretaratzea egingo dute Amezketan, 19:30ean, herriko plazan. Ondoren ekitaldia burutuko dute.

Villabonan berriz, bailarako hainbat eragilek deituta manifestazioa egingo dute gaur. Herriko plazatik 19:00etan abiatuko dira eta Zizurkilen amaituko da mar-txa. Ekimenak Villabonako Udalaren babesarekin jaso du.



Urtero bezala, iaz ere Loatzora joan ziren Aizkardi Mendi Elkarteak kideak urtarilaren 1ean. HITZA

# Otsabiora, Uzturrera eta Loatzora, urtea hasteko

## ERREDAKZIOA

Urtea hasteko batzuk parranda egiten duten bezala, beste asko mendira joan ohi dira. Bigarren aukera hau kontutan izanik Aizkardi Mendi Taldeak, Uzturre Alpinok eta Otsabio Kultur Elkarteak mendiri irteerak antolatuta dituzte urtarilaren 1ean.

Goizean igoko dira Loatzo, Uzturre eta Otsabio mendietara eta

bazkal ordurako etxera itzultzea espero dute.

## Xanpaina, turroia, salda...

Aizkardi Mendi Taldeko kideak eta animatzen diren herritarrek Loatzora joango dira.

Abiapuntua Olaederra kiroldegian jarri dute, 08:30ean. Ez dago izena eman beharrik. Loatzora iristen direnean, Aizkardiok sal-

da banatuko dute partaideen artean.

Uzturre Alpinoko kideak, hauek ere urtero bezala, Uzturre mendira joango dira goizean. Gurutzearen ondoan argazkia aterako dute xanpainaren eta turroien laguntzaz.

Azkenik, lizartzarrek Otsabio mendira joango dira 09:30ean herriko plazatik iritenda.

Eskuratu **berria** ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko **DVDa berria** rekin

gogoratu noiznahi historia egin duen txapelketa

txapelketa bertsolariak 2 DVDtan

ABENDUAREN 24TIK AUERRERA, zure kioskoan

**+ 12 €**

Baduzu zer oparitu Gabon hauetan!

AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ **berria**



13°  
5°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	9°
HOTZENA	5°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo.  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Kontzertuak

■ **Tolosa.** Musika Bandaren Urte Zaharreko kalejira Alde Zaharreko kaleetan zehar, Gorriti plazatik 20:00etan abiatuta.

### Krosak

■ **Berastegi.** Urte Zaharreko kros herrikoa: 12 urte arteko umeentzarako 1,100 km eta helduek 4,600 km. Umeen irteera 18:00etan eta helduena 18:30ak aldera. Gaur bertan ere izena eman daiteke.  
■ **Tolosa.** Samaniego-Orixe ikasketetxeak antolatutako Elkartasun Krosa. Txikiak 15:30ean aterako dira Zerkausitik eta hurrengo mailakoak ordu erdi aterako dira. Gaur bertan ere izena eman daiteke izena Zerkausian.  
■ **Villabona-Zizurkil.** XXVI. Urte Zaharreko lasterketa 16:00etan.  
■ **Lizartza.** Otsabio kultur elkarteak antolatutako kros herrikoa 17:00etatik aurrera. Gaur bertan ere izena eman daiteke izena.

### Deialdiak

■ **Tolosa.** Intxurre taberna irekita izango da gaur gauean eta baita Errege bezperan ere, hau da urtariraren 5eko gauan.

### Antzerkia

■ **Alegia.** Suyanema eta Alegria ahizpak taldeen eskutik *Orden cotidiano*, *En el aire* eta *Puerta!* antzezlanak urtariraren 3an Gaztetxean, bere 22. urtemuga dela-eta.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.  
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esaneren eta iritzien erantzukizunik.

## A Agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

agurrak



## Txotxongiloek hartu dute Kultur Etxea

**ELDUAIN** Enkarni Genuak gidatzen dituen txotxongiloek hartu zuten atzokoan herriko Kultur Etxea. Herriko haur eta hainbat guraso bertan egon ziren isil-isilik eta txintxotxintxo. Txotxongilo Taldearen laguntza txotxongiloek Euskal Herriko kondaira edo ipuin desberdinak aurkeztu zizkieten bertan bildu ziren elduindarrei. Genuak Erreka Mariren istorioa kontatuz amaitu zuen emanaldia. Txotxongiloek argi utzi zieten bildutako errekak zaintzeko dagoen beharra, hauek batean bizi baita Euskal Herriko azken lamia. **A. MAZ**


Oriako Ehorzetak  
Zerbitzuak



Servicios  
Funerarios del Oria

## SERVICIOS FUNERARIOS DEL ORIA, S. L. TANATORIO BERRIA TOLOSAN

Laster irekiko ditu ateak  
Javier Urrestarazu eta  
Iñaki Altuna  
profesionalen eskutik



Usabal Poligonoa. 120 partzela (LICAR parean)  
20400 – Tolosa.